



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

URTEKO KONTUAK ETA PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE- MEMORIA 2021

2022ko otsailaren 28a





Aurkibidea:

Orrialdea

1	BALANTZEA	4
2	EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA	5
3	ONDARE GARBIAREN ALDAKETA-EGOERA	6
3.1	<i>Ondare garbiaren aldaketen egoera guztira</i>	<i>6</i>
3.2	<i>Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orria</i>	<i>6</i>
4	ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA	7
5	AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA	8
5.1	<i>Gastu-aurrekontuaren likidazioa</i>	<i>9</i>
5.2	<i>Sarrera-aurrekontuaren likidazioa</i>	<i>10</i>
5.3	<i>Aurrekontu-emaiza</i>	<i>10</i>
6	MEMORIA	11
6.1	<i>Eginkizunak eta antolaketa</i>	<i>11</i>
6.1.1	<i>Eginkizunak</i>	<i>11</i>
6.1.2	<i>Antolaketa</i>	<i>12</i>
6.1.3	<i>Plantilla</i>	<i>13</i>
6.1.4	<i>Goi-mailako Zuzendaritza (zuzendaritza-kideak)</i>	<i>13</i>
6.2	<i>Kontuak aurkezteko oinarriak</i>	<i>14</i>
6.3	<i>Onarpen- eta balioespen-arauak</i>	<i>14</i>
6.4	<i>Ibilgetu ukiezina</i>	<i>15</i>
6.5	<i>Ibilgetu materiala</i>	<i>15</i>
6.6	<i>Transferentziak, dirulaguntzak eta beste sarrera eta gastu batzuk</i>	<i>16</i>
6.6.1	<i>Transferentziak eta sarrerak</i>	<i>16</i>
6.6.2	<i>Dirulaguntzak eta beste gastu batzuk</i>	<i>17</i>
6.7	<i>Aurrekontuz kanpoko eragiketak</i>	<i>17</i>
6.7.1	<i>Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak</i>	<i>17</i>
6.8	<i>Administrazio-kontratazioa. Esleipen-prozedurak</i>	<i>17</i>
6.9	<i>Ingurumenari buruzko informazioa</i>	<i>18</i>
6.10	<i>Aurrekontuei buruzko informazioa</i>	<i>18</i>
6.10.1	<i>Kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen egoera, aurreko ekitaldietakoa ...</i>	<i>18</i>
6.10.2	<i>Diruzaintzako kontua</i>	<i>18</i>
6.10.3	<i>Kreditu txartelak</i>	<i>20</i>
6.11	<i>Finantza-, ondare- eta aurrekontu-adierazleak</i>	<i>20</i>
6.12	<i>Ekonomia- eta ondare-emaiza eta aurrekontuaren emaitza uztartzea</i>	<i>21</i>
7	PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MEMORIA	22
7.1.1	<i>DBEBren jarduerak</i>	<i>22</i>
7.1.2	<i>Datuen babeserako eskubidea sustatzeko jarduerak</i>	<i>23</i>
7.1.3	<i>2021ean egindako jarduerarik aipagarrienak</i>	<i>23</i>



1 BALANTZEA

AKTIBOA	OHARRAK MEMORIAN	2021EKO EKITALDIA	2020KO EKITALDIA	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	OHARRAK MEMORIAN	2021EKO EKITALDIA	2020KO EKITALDIA
A) Aktibo ez arrunta		75.080,45	67.196,77	A) Ondare garbia		3.668.065,51	3.623.429,29
I) Ibilgetu ukiezina		62.332,82	56.543,70	II) Sortutako ondarea		3.668.065,51	3.623.429,29
3. Aplikazio informatikoak	6.4	62.332,82	56.543,70	1. Aurreko ekitaldietako emaitzak		3.623.429,29	3.637.141,48
II) Ibilgetu materiala		12.747,63	10.653,07	2. Ekitaldiko emaitza		44.636,22	(-13.712,19)
5. Bestelako ibilgetu materiala	6.5	12.747,63	10.653,07				
B) Aktibo arrunta		3.774.312,92	3.702.891,34	C) Pasibo arrunta		181.327,86	146.658,82
III) Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk		350,00	350,00	IV) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaindu beharreko beste kontu batzuk		181.327,86	146.658,82
2. Kobratu beharreko beste kontu batzuk		350,00	350,00	1. Gestio-eragiketengatik hartzekodunak		61.142,42	52.805,44
VII) Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk		3.773.962,92	3.702.541,34	3. Administrazio publikoak	6.7.1	120.185,44	93.853,38
2. Diruzaintza	6.10	3.773.962,92	3.702.541,34				
AKTIBOA GUZTIRA (A+B)		3.849.393,37	3.770.088,11	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+C)		3.849.393,37	3.770.088,11



2 EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	OHARRAK MEMORIAN	2021	2020
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak		1.817.261,00	1.792.069,00
a) Ekitaldikoak		1.817.261,00	1.792.069,00
a.2) Transferentziak		1.817.261,00	1.792.069,00
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA (1+2+3+4+5+6+7)		1.817.261,00	1.792.069,00
8. Langile-gastuak		(-1.461.082,11)	(-1.426.492,86)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak		(-1.188.335,51)	(-1.137.525,33)
b) Gizarte kargak		(-272.746,60)	(-288.967,53)
9. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak			(-2.500,00)
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk		(-285.250,05)	(-357.321,55)
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak		(-285.250,05)	(-357.321,55)
12. Ibilgetuaren amortizazioa		(-26.297,91)	(-19.818,23)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA (8+9+10+11+12)		(-1.772.630,07)	(-1.806.132,64)
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)		44.630,93	(-14.063,64)
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta aktibo salgarrien balio-narriadura eta besterentzeagatiko emaitzak		(-94,71)	
b) Bajak eta besterentzeak		(-94,71)	
14. Arruntak ez diren beste partida batzuk		100,00	351,45
a) Sarrerak		100,00	351,45
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14)		44.636,22	(-13.712,19)
III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16+17+18+19+20+21)			
IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezkia eta desaurrezkia) garbia (II + III)		44.636,22	(-13.712,19)



3 ONDARE GARBIAREN ALDAKETA-EGOERA

3.1 Ondare garbiaren aldaketen egoera guztira

	II. Sortutako ondarea 2021	II. Sortutako ondarea 2020
A. ONDARE GARBIA AURREKO EKITALDIAREN AMAIERAN	3.623.429,29	3.637.141,48
B. DOIKUNTZAK KONTABILITATE-IRIZPIDEEN ALDAKETENGATIK ETA ERROREEN ZUZENKETENGATIK		
C. EKITALDIKO HASIERAKO ONDARE GARBIA DOITUTA (A+B)	3.623.429,29	3.637.141,48
D. EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK	44.636,22	(-13.712,19)
1. Ekitaldian kontabilizatutako gastuak eta sarrerak	44.636,22	(-13.712,19)
2. Ondare-eragiketak entitatearekin edo entitate jabeekin		
3. Ondare garbiaren bestelako aldaketak		
A. ONDARE GARBIA EKITALDIAREN AMAIERAN (C+D)	3.668.065,51	3.623.429,29

3.2 Kontabilizatutako sarrera eta gastuen egoera-orria

	2021	2020
I. Ondarearen emaitza ekonomikoa	44.636,22	(-13.712,19)
II. Ondare garbian zuzenean kontabilizatutako diru- sarrera eta gastuak:		
III. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura edo estalitako partiden hasierako baliora egindako transferentziak:		
IV. KONTABILIZATUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA (I + II + III)	44.636,22	(-13.712,19)



4 ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA

	OHARRAK MEMORIAN	2021	2020
I. KUDEAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK			
A) Kobrantzak:		2.199.444,64	2.159.331,54
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak		1.817.261,00	1.792.069,00
4. Beste ente publiko batzuen kontura bildutako baliabideen kudeaketa		382.083,64	366.911,09
8. Beste kobrantza batzuk		100,00	351,45
B) Ordainketak:		(-2.108.331,31)	(-2.206.690,86)
7. Langile-gastuak		(-1.457.026,34)	(-1.433.580,64)
8. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak		(-2.500,00)	(-3.500,00)
10. Kudeaketako beste gastu batzuk		(-293.053,39)	(-419.845,29)
11. Beste ente publiko batzuen kontura bildutako baliabideen kudeaketa		(-355.751,58)	(-348.047,58)
13. Beste ordainketa batzuk			(-1.717,35)
Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)		91.113,33	(-47.359,32)
II. INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK			
C) Kobrantzak		2.008,60	
1. Benetako inbertsioak saltzea		2.008,60	
D) Ordainketak:		(-21.700,35)	(-26.076,22)
4. Benetako inbertsioak erostea		(-21.700,35)	(-26.076,22)
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)		(-19.691,75)	(-26.076,22)
III. FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK			
IV. TRUKE-TASEN ALDAKETEN ERAGINA			
V. DIRUAREN ETA DIRUAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN IGOERA/JAITSIERA GARBIA (I + II + III + IV)		71.421,58	(-73.435,54)
Ekitaldiaren hasierako eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak		3.702.541,34	3.775.976,88
Ekitaldiaren amaierako eskudirua eta eskudiruaren baliokide diren aktibo likidoak		3.773.962,92	3.702.541,34



5 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 13. artikulua xedatzen duenez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen menpe dago, bere aurrekontua aldatzeko, gauzatzeko eta kitatzeko araubideari dagokionez.

Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duenaren VIII. tituluan dago araututa aurrekontuen likidazioa.

Azkenik, Ekonomia eta Ogasun sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Plana onartzen du, eta planak honako hauek jasotzen ditu besteak beste: urteko kontuak egiteko arauak eta kontuak egiteko dokumentu ereduak, memoriaren edukia barne.



5.1 Gastu-aurrekontuaren likidazioa

Aplikazioen izena	Hasierako kredituak	Kreditu-aldaketak	Kredituak guztira	Onartutako obligazioak	Egindako ordainketak	Ordainkera likidoak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera	Onartutako obligazioak 2020
GOI-KARGUDUNEN ORDAINSARIAK	82.022,00		82.022,00	80.187,58	80.187,58	80.187,58		% 97,76	79.471,76
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK	66.984,00		66.984,00	66.982,86	66.982,86	66.982,86		% 100,00	66.385,34
FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK	1.102.329,00		1.102.329,00	1.041.165,07	1.041.165,07	1.041.165,07		% 94,45	991.668,23
ENPLEGATZAILEAREN KONTURAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK	290.680,00		290.680,00	230.747,83	210.631,94	210.631,94	20.115,89	% 79,38	250.366,64
PENTSIOEN SISTEMA OSAGARRIETARAKO EKARPENAK	25.000,00		25.000,00	23.862,58	18.877,96	18.877,96	4.984,62	% 95,45	22.750,51
PRESTAKUNTZA	6.700,00		6.700,00	736,00	736,00	736,00		% 10,99	479,00
GIZARTE EKINTZA	6.000,00		6.000,00	5.999,99	5.999,99	5.999,99		% 100,00	4.700,00
ASEGURUA	12.125,00		12.125,00	11.400,20	11.400,20	11.400,20		% 94,02	10.671,38
ERAIKINAK	1.000,00		1.000,00					% 0,00	238,64
TRESNERIA									42,97
ALTZARIAK	10.000,00		10.000,00	7.216,48	5.872,32	5.872,32	1.344,16	% 72,16	6.520,81
PROFESIONAL INDEPENDENTEEN ZERBITZUAK	23.000,00		23.000,00					% 0,00	
ABOKATUAK, PROKURADOREAK ETA KOSTU JUDIZIALAK	5.000,00		5.000,00	819,66	819,66	819,66		% 16,39	
BANKU-ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK				4.149,32	4.149,32	4.149,32			
ERAKUNDE KOMUNIKAZIOA	18.000,00		18.000,00					% 0,00	6.498,91
PROTOKOLOA ETA ORDEZKARITZA	6.000,00		6.000,00	2.729,30	2.729,30	2.729,30		% 45,49	825,00
BULEGOKO MATERIALA	8.000,00		8.000,00	1.659,11	1.659,11	1.659,11		% 20,74	1.732,06
PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK	15.000,00		15.000,00	13.925,62	13.722,72	13.722,72	202,90	% 92,84	13.168,89
LOKOMOTIBAK ETA EGONALDI-GASTUAK	18.000,00		18.000,00	6.194,66	5.739,40	5.739,40	455,26	% 34,41	4.708,91
KOMUNIKAZIO TELEFONIKOAK, INFORMATIKOAK ETA TELEMATIKOAK				73,34	73,34	73,34			
POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK	9.000,00		9.000,00	1.332,84	1.258,41	1.258,41	74,43	% 14,81	1.426,35
MEZULARITZA	1.000,00		1.000,00	91,49	91,49	91,49		% 9,15	156,67
APLIKAZIO INFORMATIKOEN MANTENTZE-LANAK ETA USTIAPENA	15.100,00		15.100,00	9.564,93	8.011,60	8.011,60	1.553,33	% 63,34	16.538,04
KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ERAKUNDEAK	327.000,00		327.000,00	266,58	266,58	266,58		% 0,08	
IVAP/HAEE. KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ERAKUNDEAK									
EJIE. LOKALEN ALOKAIRUA. KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK. - EAE-KO ENTITATEAK				179.244,00	179.244,00	179.244,00			175.552,68
EJIE. EKIPO INFORMATIKOEN ALOKAIRUA. KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ENTITATEAK				10.648,79	9.843,41	9.843,41	805,38		10.387,76
EJIE. APLIK. INFORMATIKOEN MANTENTZE-LANA ETA USTIAPENA KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAE-KO ENTITATEAK				36.724,92	33.678,35	33.678,35	3.046,57		86.816,93
ARGITALPENAK ARGITARATZEA ETA BANATZEA	19.000,00		19.000,00						21.243,64
BILERAK, HITZALDIK ETA IKASTAROK	15.000,00		15.000,00	3.176,01	3.176,01	3.176,01		% 21,17	971,55
BESTE ZERBITZU BATZUK	9.500,00		9.500,00	7.433,00	7.323,27	7.323,27	109,73	% 78,24	10.491,74
IRABAZI ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEI	9.000,00		9.000,00					% 0,00	2.500,00
Eragiketa arruntak guztira:	2.100.440,00		2.100.440,00	1.746.332,16	1.713.695,84	1.713.639,89	32.692,27	% 83,14	1.786.314,41
ALTZARIAK	12.000,00		12.000,00	7.076,08	6.364,60	6.364,60	711,48	% 58,97	
INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK				1.470,15	1.470,15	1.470,15			
APLIKAZIO INFORMATIKOAK	80.000,00		80.000,00	27.738,67			27.738,67	% 34,67	27.676,88
Kapital eragiketak guztira:	92.000,00		92.000,00	36.284,90	7.834,75	7.834,75	28.450,15	% 39,44	27.676,88
Guztira:	2.192.440,00		2.192.440,00	1.782.617,06	1.721.530,59	1.721.474,64	61.142,42	% 81,31	1.813.991,29



5.2 Sarrera-aurrekontuaren likidazioa

DESKRIBAPENA	AURREKONTU AURREIKUSPENAK			ONARTUTAKO ESKUBIDEAK	DIRU-BILKETA GARBIA	KOBRATU GABEKO ESKUBIDEAK ABENDUAREN 31N	Betearazpenaren %	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK 2020
	HASIERAKOAK	ALDAKETAK	BEHIN BETIKOAK					
APARTEKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUK ONDARE-SARRERAK				2.108,60	2.108,60			351,45
APARTEKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUK EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRETIK	1.802.261,00		1.802.261,00	1.802.261,00	1.802.261,00		% 100,00	1.778.069,00
Eragiketa arruntak guztira	1.802.261,00		1.802.261,00	1.804.369,60	1.804.369,60		% 100,12	1.778.420,45
EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRETIK	15.000,00		15.000,00	15.000,00	15.000,00		% 100,00	14.000,00
DIRUZAINZAKO GERAkinak	375.179,00		375.179,00					
Kapital eragiketak guztira	390.179,00		390.179,00	15.000,00	15.000,00		% 3,84	14.000,00
Guztira:	2.192.440,00		2.192.440,00	1.819.369,60	1.819.369,60		% 82,98	1.792.420,45

5.3 Aurrekontu-emaizta

KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA	2020KO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA
a) Eragiketa arruntak	1.804.369,60	1.746.332,16	58.037,44	(-7.893,96)
b) Kapital eragiketak	15.000,00	36.284,90	(-21.284,90)	(-13.676,88)
I. UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA (I=a+b+c+d)	1.819.369,60	1.782.617,06	36.752,54	(-21.570,84)
AURREKONTU EMAITZA DOITUA (I+II+III)			36.752,54	(-21.570,84)



6 MEMORIA

6.1 Eginkizunak eta antolaketa

6.1.1 Eginkizunak

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (aurrerantzean Bulegoa) otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortu zuen, izaera honekin: *zuzenbide publikoko entea da, nortasun juridiko propioa eta jarduteko erabateko gaitasuna ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak.*

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen esparruan Bulegoak honako eginkizun hauek ditu:

- a) Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere informaziorako eskubideari eta datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideei dagokienez.
- b) Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea.
- c) Hala badagokio, datuen tratamendua datuak babesteko indarrean dagoen legeriaren printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea, beste erakunde batzuen aginpideei ezer kendu gabe.
- d) Ukituen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea.
- e) Datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonen.
- f) Datu-tratamenduen arduradun eta eragileei, esateko dutena entzun eta gero, tratamenduak indarrean dauden legeetara egokitzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatzea eta, beharrezkoa bada, lege horiek bete ezean, tratamendua gelditzeko eta fitxategiak indarrik gabe uzteko agintzea, salbu datuen nazioarteko transferentziei buruzkoan.
- g) Zehatzeko ahala erabiltzea eta, beharrezkoa izanez gero, bere iritziz 2/2004 legearen 22. artikuluan tipifikaturiko arau-hausteen erantzuleak direnen aurka diziplinazko prozedura hasteko proposatzea, eta hartu beharreko kautela-neurriak hartzea, salbu datuen nazioarteko transferentziei buruzkoan. Hori guztia lege honetan zehazturik dagoen moduan.
- h) Lege hori garatzen duten xedapen orokorretako egitasmoen buruzko txostenak egitea, derrigor.
- i) Bere lana egiteko beharrezkoa duen laguntza eta informazio guztia eskatzea datu pertsonalen tratamenduen arduradunei.
- j) Datu pertsonalen tratamenduak badirela gauza jakinikoa izan dadin zaintzea. Horretarako, urtero-urtero, tratamendu horien zerrenda bat argitaratuko du, beste hainbat informazio osagarrirekin. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak erabakiko du zein informazio osagarri eman (Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa, Erregelamendu Orokorra aplikatu ostean).
- k) Urteko memoria idaztea eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzara bidaltzea.
- l) Funtzio estatistiko publikoari buruzko legeek estatistikako datuen bilketari buruz eta estatistikako isilpekotasunari buruz dakartzaten xedapenak bete daitezen zaintzea, beharrezko jarraibideak ematea, estatistikarako bakarrik sortutako fitxategien segurtasun-baldintzei buruzko irizpenak ematea eta 2/2004 Legearen 24. artikuluan aipaturiko ahala egikaritzea.
- m) Datu pertsonalen fitxategien segurtasuna eta herritarrek fitxategi horiei buruz dituzten eskubideak hobeto babeste aldera, Datuak Babesteko Estatuko Bulegoarekin eta beste



autonomia-erkidego batzuetako antzeko erakundeekin lankidetzan aritzea hartarako beharrezkoak diren jarduera guztietan.

- n) Lege horren 2.1 artikuluko administrazio publikoek, instituzioek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege horren aplikazio-eremuan dauden datu pertsonalen tratamenduei buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.
- o) Lege eta erregelamenduetan emandako beste eginkizun oro.

6.1.2 Antolaketa

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gobernu-organoak dira zuzendaria, Kontseilu Aholku-emailea eta bere estatutuan ezartzen diren besteak.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa legezko eta erregelamenduzko xedapen hauek eraentzen dute:

- a) Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak eta lege hori garatzeko erregelamenduzko xedapenak.
- b) Bulegoaren Estatutuak (urriaren 18ko 309/2005 Dekretu bidez onartua).
- c) 2016/679 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duenak.
- d) Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, eta lege hori garatzen duten erregelamenduek.
- e) Administrazio ahalak eta ahal publikoak gauzatzean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.
- f) Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duenak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duenak.
- g) Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak.

Bulegoaren Estatutuak dioenez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontratazio-araubidea eta aurrekontua aldatzeko, gauatzeko eta likidatzeko araubidea administrazio publikoentzat indarrean dagoen zuzenbide publikoan aurreikusitakoa izango da. Era berean, kontabilitate publikoaren araubidearen menpe ere badago.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako ondasun eta baliabide ekonomiko hauek izango ditu bere eginkizuna betetzeko:

- a) Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan urtero izendatuko zaion diru-kopurua.
- b) Ematen dizkioten dirulaguntzak eta egiten dizkioten ekarpenak.
- c) Bere jardunak ematen dizkion diru-sarrerak, ohikoak nahiz ohiz kanpokoak.
- d) Bere ondarea osatzen duten ondasun eta baloreak eta horietatik sortutako produktu eta errentak.
- e) Legez ematen dioten beste edozein ondasun edo baliabide.



2/2004 Legearen 17. artikuluan azaltzen diren eginkizunak egikaritzeko, gainera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa hierarkikoki zuzendariaren mende dauden administrazio-unitate hauetan antolatzen da:

- a) Datu pertsonalen fitxategien Erregistroa eta Auditoria.
- b) Aholkularitza Juridikoa eta Ikuskaritza.
- c) Idazkaritza Nagusia.

6.1.3 Plantilla

2/2004 Legearen 2.1 artikuluan azaltzen diren administrazio publikoetako eta instituzioetako funtzionarioek betetzen dituzte Datuak Babesteko Euskal Bulegoko lanpostuak. Datuak Babesteko Euskal Bulegoko langileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko funtzio publikoko arauen pean egongo dira.

2021ean DBEBren batez besteko plantilla honako hau zen, kategoria orokorren arabera:

Kategoria	Dotazioak	Batez besteko plantilla
Zuzendaria	1	1
Goi-mailako teknikariak	16	15
Administrariak	4	4
GUZTIRA	21	20

Hona hemen 2021eko abenduaren 31n plantillaren egoera, sexua kontuan hartuta:

Kategoria	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzendaria	1		1
Goi-mailako teknikariak	5	10	15
Administrariak	2	2	4
GUZTIRA	8	12	20

6.1.4 Goi-mailako Zuzendaritza (zuzendaritza-kideak)

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen arabera, zuzendaritza-kideen artean zuzendariaren estatutu pertsonala soilik arautzen du azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuak. Zuzendariak zuzentzen eta ordezkatzen du Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

Goi-mailako zuzendaritzako langileriak (zuzendaria) 2021eko ekitaldian 80.187,58 euroko lansaria sortu zuen guztira (2020an 79.471,76 euro). Lansari hori erantsitako galera eta irabazien kontu «Langile-gastuak» epigrafean erregistratuta agertzen da.

2021eko ekitaldian zuzendariak ez zuen eragiketarik egin bere trafiko arruntetik kanpo edo merkatuko baldintzetatik bazter, ez entitatearekin ez taldeko beste entitate batzuekin.



2021eko abenduaren 31n, ez zen pentsioen eta bizi-aseguruen arloko obligaziorik hartu zuzendaritzan ari ziren edo lehenago aritu ziren langileei buruz, eta haien kontura ez zen obligaziorik hartu, berme gisa.

2021eko abenduaren 31n ez zen pentsioen eta bizi-aseguruen arloko aurrerakinik hartu zuzendaritzan ari ziren edo lehenago aritu ziren langileei buruz.

6.2 Kontuak aurkezteko oinarriak

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Bulegoak kontabilitate publikoaren arauak eta printzipioak bete behar ditu. 2021eko abenduaren 31ko datarekin aurkeztu dira urteko kontuak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Planean xedatutakoaren arabera.

Kontu horiek jasotzen dituzten dokumentuetan agertzen diren datuak, hau da, balantzean, ondare-emaitezaren eta emaitza ekonomikoaren kontuan, ondare gordinetan dauden aldaketen egoeran, diru-fluxuaren egoeran, aurrekontuaren likidazioaren egoeran eta memorian eurotan daude adierazita.

Urteko kontuak aurreko ekitaldietakoekin alderatuta aurkezten dira. Beraz, 2021 eta 2020ko balantzeko partidak, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria ere adierazi dira.

6.3 Onarpen- eta balioespen-arauak

Ibilgetu ukiezinak

Ibilgetu ukiezinaren erosketak erosketa-prezioaren arabera kontabilizatzen dira, eta amortizazio-metodo lineala ezartzen zaie: urtean % 25a.

Ibilgetu materialak

Ibilgetu materialaren erosketak erosketa-prezioaren arabera kontabilizatzen dira, eta amortizazio-metodo lineala ezartzen zaie ondasunei zenbatetsi zaien bizitza baliagarriaren arabera, honako portzentaje hauek aplikatuta:

	<u>Portzentajeak</u>
Instalazioak eta altzariak	% 15
Informazio-prozesuetarako ekipoak	% 25
Beste batzuk	% 20

Lehendik dauden ondasunetan egiten diren hobekuntzek aktiboen bizitza baliagarria luzatzen badute, kapitalizatu egiten dira. Bestalde, mantentze-lanerako eta kontserbaziorako gastuak



gertatzen diren unean kargatzen zaizkie emaitzei. Bajak eta besterentzeak kontabilitatean jasotzeko, elementuaren kostua eta metatutako amortizazioa ezabatu egiten dira.

Aktibo eta pasibo finantzarioak

Kobratu eta ordaindu beharreko partidak balio nominala kontuan hartuta erregistratzen dira.

Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak kontabilitatean jasotzeko, horiek sortzen diren aldia hartzen da kontuan, eta ez noiz kobratzen edo ordaintzen diren.

Jasotako transferentziak sarrera moduan erregistratzen dira eskubidea sortzen den ekitaldian bertan.

6.4 Ibilgetu ukiezina

Hona hemen 2021eko ekitaldiko mugimenduak:

KOSTUA	Hasierakoa	577.317,04
	Ekitaldi berria	27.738,67
	Amaierakoa	605.055,71

METATUTAKO AMORTIZAZIOA	Hasierakoa	520.773,34
	Ekitaldiko amortizazioa	21.949,55
	Amaierakoa	542.722,89

BALIO GARBIA	Hasierakoa	56.543,70
	Amaierakoa	62.332,82

6.5 Ibilgetu materiala

Hona hemen 2021eko ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan eta horien amortizazio metatuetan egon diren mugimenduak:



		Instalazio teknikoak	Makineria eta tresneria	Altzariak eta bulegoko materiala	Ekipo informatikoak	Beste inbertsio batzuk	GUZTIRA
KOSTUA	Hasierakoa	11.633,90	387,80	86.623,25	3.643,86	5.005,80	207.294,61
	Ekitaldi berria			7.076,08	1.470,15		8.546,23
	Ekitaldiko bajak	(-11.633,90)		(-12.018,93)			(-23.652,83)
	Amaierakoa		387,80	181.680,40	5.114,01	5.005,80	192.188,01

METATUTAKO AMORTIZAZIOA	Hasierakoa	11.633,90	387,80	175.970,18	3.643,86	5.005,80	196.641,54
	Ekitaldiko amortizazioa			4.072,70	275,66		4.348,36
	Ekitaldiko bajak	(-11.633,90)		(-9.915,62)			(-21.549,52)
	Amaierakoa		387,80	170.127,26	3.919,52	5.005,80	179.440,38

BALIO GARBIA	Hasierakoa			10.653,07			10.653,07
	Amaierakoa			11.553,14	1.194,49		12.747,63

Baja diren partidak teknologia aldetik zaharkituta geratu diren ekipamenduei dagozkie, ekipamendu horien ordeaz berriak jarri baitira.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10. artikulua xedatzen duenez, Datu Pertsonalak Babesteko Euskal Bulegoaren ondasun eta eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoaren ondarekoak dira.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak EJE SARI alokatutako instalazioetan egiten du bere jarduerak.

6.6 Transferentziak, dirulaguntzak eta beste sarrera eta gastu batzuk

6.6.1 Transferentziak eta sarrerak

DBEBk transferentzia bidez jasotzen dituen sarrerak urtero izendatzen diren Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako diru-kopuruak dira.

Beste alde batetik, Bulegoak dituen diruzaintzako gerakin metatuak erabiltzeko dauden aukera guztiak ikusita, uste dugu gerakinok erabili behar ditugula DBEBk, bere eskumenak gauzatzeko asmoarekin erabiltzea aurreikusita dituen jarduerak atenditzeko beste ballabide bat balitz bezala, gainontzeko sarrerekin ezinezkoa delako behar bezala finantzatzea aurreikusita dauden gastuak. Diruzaintzako gerakin metatuak ohiko aurrekontuan txertatzeko proposamena egiteko eskumena DBEBren zuzendariak du, dagokion aurrekontu aurreproiektua onartzean eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzean, EAEko aurrekontu orokorretan txertatzeko.

Ondorioz, erabaki dugu diruzaintzako gerakin zati bat erabili dezakegula oso-osorik bi helburu hauekin:

- Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egin dizkion ekarpen txikiagoak osatzea.
- Jarduketa-planetan ezarritako proiektuak eta gastuak gauzatzeko, kontuan izanda ez genukeela horretarako finantzaziorik, ez balitz gure gerakinaren zati bat erabilia.



- c) Ondare-sarreretatik etorri ohi den finantzazioaren gaitasun eza konpentsatzea (bankuko interesak).

6.6.2 Dirulaguntzak eta beste gastu batzuk.

Atal honetan nabarmendu behar dugu 2021eko ekitaldian ez dela egon halako kontzeptuei egotzi ahal zaien gasturik.

6.7 Aurrekontuz kanpoko eragiketak

6.7.1 Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak

Atal honetako saldoak bere baitan hartzen ditu administrazio publiko hartzekodunei ordaindu gabeko zenbatekoak: PFEZren eta langileen kargurako gizarte-kotizazioen ondoriozko atxikipen guztiak.

	Hasierako saldoa	Kobrantzak	Ordainketak	Amaierako saldoa
OGASUN PUBLIKOA, HARTZEKODUNAK BESTE ZERGA-KONTZPTU BATZUENGATIK	89.562,69	331.203,38	304.633,31	116.132,76
GIZARTE AURREIKUSPENEKO ERAKUNDEAK, HARTZEKODUNAK	4.290,69	50.880,26	51.118,27	4.052,68
Guztira	93.853,38	382.083,64	355.751,58	120.185,44

6.8 Administrazio-kontratazioa. Esleipen-prozedurak

Hainbat kontratu txiki egin dira DBEBren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honako hauek izan dira:

- Lokalen alokairua
- Ekipo informatikoen alokairua
- Fotokopiagailuen mantentze-lana
- Bulegoko materiala eta ekipo informatikoak erostea
- Egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea
- Posta bidezko komunikazioen zerbitzua
- Aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena
- Ekitaldiak antolatzea eta ekitaldiotan parte hartzea
- Argitaratu beharreko ikus-entzunezko materialak, liburuxkak eta beste zenbait elementu diseinatzea eta editatzea
- Urteko memoria argitaratzea
- Kalitatearen kudeaketa-programetan parte hartzea (EFQM / Q-EPEA)
- Kanpoko prebentzio-zerbitzua
- Langileen bizi- eta istripu-aseguruak



6.9 Ingurumenari buruzko informazioa

Entearen jarduera kontuan hartuta, ez du ondarearekin, finantza-egoerarekin eta horren emaitzekin alderatuta garrantzirik izan dezakeen ingurumen jatorriko erantzukizunik, gasturik, aktiborik ezta hornidurarik, ez kontingentziarik ere.

Entitatea ez da berotegi-efektuko gasak emititzeko eskubideen titularra, eta ez dauka kontrolik halako eskubideen gainean.

6.10 Aurrekontuei buruzko informazioa

6.10.1 Kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen egoera, aurreko ekitaldietakoa

Kobratu beharreko eskubideak

Ez dago kobratu beharreko eskubiderik.

Ordaindu beharreko obligazioak

Azalpena	Ordaindu gabeko obligazioak urtarriaren 1ean	Egindako ordainketak	Ordaintzeke dauden obligazioak
ENPLEGATZAILEAREN KONTURAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK	21.044,74	21.044,74	
ALTZARIAK	2.226,61	2.226,61	
PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK	203,6	203,6	
LOKOMOTIOA ETA EGONALDI-GASTUAK	250	250	
POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK	126,2	126,2	
APLIKAZIO INFORMATIKOEN MANTENTZE-LANAK ETA USTIAPENA	1.479,21	1.479,21	
IRABAZI ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEI	2.500,00	2.500,00	
APLIKAZIO INFORMATIKOAK	13.865,60	13.865,60	
EJIE. Ekipo informatikoen alokairua Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak	1.754,11	1.754,11	
EJIE. Aplik. informatikoen mantentze-lana eta ustiapena Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko entitateak	9.355,37	9.355,37	
ITXITAKO AURREKONTUEN OBLIGAZIOAK - 2020	52.805,44	52.805,44	

6.10.2 Diruzaintzako kontua

Izakinak

Ordinalen azalpena	Saldoa urtarriaren 1ean	Sarrerak	Ordainketak	Saldoa abenduaren 31n
KUTXAKO FUNTS FINKOA	600,00			600,00
AVPD/DBEB KONTU NAGUSIA - GASTUAK	3.652.485,93	2.201.353,24	2.130.093,47	3.723.745,70
AVPD/DBEB KONTU NAGUSIA - SARRERAK	49.455,41	100,00	61,81	49.617,22
	3.702.541,34	2.201.453,24	2.130.031,66	3.773.962,92



Diruzaintzaren egoera

	2021	2020
Diruzaintza ekitaldiaren hasieran	3.702.541,34	3.775.976,88
KOBRANTZAK		
Aurrekontuetakoak		
Onartutako eskubideengatik zordunak Urteko ekitaldia	1.819.369,60	1.792.420,45
Onartutako eskubideengatik zordunak Itxitako ekitaldia		
Aurrekontuz kanpoko eragiketakoak		
Ente publiko hartzekodunak kontzeptu fiskalengatik	331.203,38	314.800,91
Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodunak	50.880,26	52.110,18
KOBRANTZAK GUZTIRA	2.201.453,24	2.155.973,62
ORDAINKETAK		
Aurrekontuetakoak		
Urteko ekitaldian agindutako ordainketengatik hartzekodunak	1.721.474,64	1.761.185,85
Itxitako ekitaldian agindutako ordainketengatik hartzekodunak	52.805,44	121.816,30
Aurrekontuz kanpoko eragiketakoak		
Aurrekontuzkoak ez diren beste zordun batzuk		
Ente publiko hartzekodunak kontzeptu fiskalengatik	304.633,31	296.870,17
Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodunak	51.118,27	51.177,41
Jasotako fidantzak		1.717,35
ORDAINKETAK GUZTIRA	2.130.031,66	2.229.409,16
Diruzaintza ekitaldiaren amaieran	3.773.962,92	3.702.541,34

Diruzaintzako gerakina

	2021	2020
(a) Kobratzeko dauden zordunak:	350,00	350,00
+ Aurrekontuari lotuta ez dauden beste eragiketa batzuetakoak:	350,00	350,00
(b) Ordaintzeke dauden hartzekodunak:	181.327,86	146.658,82
+ Gastu aurrekontuetakoak, aurtengoa:	61.142,42	52.805,44
+ Aurrekontuari lotuta ez dauden beste eragiketa batzuetakoak:	120.185,44	93.853,38
(c) Diruzaintzako funts likidoak:	3.773.962,92	3.702.541,34
(d) Diruzaintzako gerakin likidoa (a - b + c):	3.592.985,06	3.556.232,52

Diruzaintzaren aldaketa, metatutako aurreko gerakinarekin alderatuta

	2021	2020
Diruzaintzako gerakin likidoa 01/01	3.556.232,52	3.577.803,36
(+/-) Ekitaldiko aurrekontu-eraketa	36.752,54	(-21.570,84)
Diruzaintzako gerakin likidoa 12/31	3.592.985,06	3.556.232,52
Itxitako ekitaldietako eskubideak kitatzea		
Diruzaintzako gerakin likidoa 12/31 doitu	3.592.985,06	3.556.232,52



6.10.3 Kreditu txartelak.

Erakundeak kreditu-txartel bat dauka, 2.500 €-ko muga daukana. 2021eko abenduaren 31n ez zuen kopuru bat ere erabili, ezta 2020ko abenduaren 31n ere.

6.11 Finantza-, ondare- eta aurrekontu-adierazleak

RATIOAK	2021	FORMULA	AZALPENA
GASTU AURREKONTUAR EN BETEARAZPENA	% 81,31	$\frac{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK}}{\text{KREDITUAK GUZTIRA}}$	Ekitaldian onartutako kredituen konturako obligazioak
SARRERA AURREKONTUAR EN BETEARAZPENA	% 82,98	$\frac{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK}}{\text{KREDITUAK GUZTIRA}}$	Onartutako eskubide garbiak, ekitaldian onartutako kredituekiko
ORDAINKETEN BETETZE MAILA	% 96,57	$\frac{\text{ORDAINDUTAKO OBLIGAZIOAK}}{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK}}$	Ordainketen kudeaketaren portaera ebaluatzen du
KOBRANTZEN BETETZE MAILA	% 100,00	$\frac{\text{LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK}}{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Kobrantzen kudeaketaren efikazia ebaluatzen du
LANGILE-GASTUEN INDIZEA	% 83,67	$\frac{\text{LANGILE-GASTUAK}}{\text{GASTU ARRUNTAK}}$	Balio du jakiteko zenbatekoa den langileen gastuen portzentajea, eragiketa arruntekiko
INBERTSIOEN GARRANTZIAREN INDIZEA	% 2,04	$\frac{\text{KAPITAL ERAGIKETENGATIK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK}}{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK GUZTIRA}}$	Egindako inbertsioen garrantzi kuantitatiboa, izenpetutako obligazioekiko
INBERTSIOEN FINANTZAKETA INDIZEA	% 41,34	$\frac{\text{KAPITAL ERAGIKETEN ONDORIOZKO SARRERAK}}{\text{KAPITAL ERAGIKETEN ONDORIOZKO GASTUAK}}$	Mota bereko sarrerekin finantzatzen diren kapital eragiketetako gastuen adierazlea
AUTOFINANZAK ETA ARRUNTERAKO MARJINA	% 96,90	$\frac{\text{ERAGIKETA ARRUNTEN ONDORIOZKO OBLIGAZIOAK}}{\text{ERAGIKETA ARRUNTEN ONDORIOZ ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Mota bereko sarrerekin finantzatzen diren eragiketa arruntetako gastuen adierazlea
FINANTZAKETA GAITASUNA	% 2,02	$\frac{\text{AURREZKIA/DEFIZITA}}{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Balio du ebaluatzeko ea zer finantzaketa-gaitasun dagoen, aurrekontu ekitaldiarekiko
BATEZ BESTEKO KOBRAKETA ALDIA	---	$\frac{\text{ESKUBIDEAK KOBRATZEKE} \times 360}{\text{ONARTUTAKO ESKUBIDEAK}}$	Aurrekontu-ekitaldia bukatzean kobratzeko epeak ebaluatzeko (batez bestekoa egiteko) balio du
BATEZ BESTEKO ORDAINKETA ALDIA	12,35	$\frac{\text{OBLIGAZIOAK ORDAINTZEKE} \times 360}{\text{ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK}}$	Aurrekontu-ekitaldia bukatzean ordaintzeko epeak ebaluatzeko (batez bestekoa egiteko) balio du



6.12 Ekonomia- eta ondare-emaiza eta aurrekontuaren emaiza uztartzea

Segidan ikus daiteke nola uztartzen diren 2021eko ekitaldiko kontabilitate-emaiza eta aurrekontuaren betearazpenak sortutako emaiza.

	2021	2020
EKITALDIKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) GARBIA	44.636,22	(-13.712,19)
KEN: EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN PARTE EZ DIREN AURREKONTU-GASTUAK	36.284,90	27.676,88
Ibilgetu immateriala eta eraikitako edo beste erakunde batzuei erositako aktiboak	36.284,90	27.676,88
GEHI: AURREKONTU-EMAITZAN EZ DAUDEN GASTUAK	26.297,91	19.818,23
Ibilgetuaren amortizazioa	26.297,91	19.818,23
KEN: AURREKONTU-EMAITZAN EZ DAUDEN SARRERAK	(-2.103,31)	
Ibilgetu materialaren ondoriozko galerak (bajak)	(-2.103,31)	
EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA	36.752,54	(-21.570,84)



7 PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE-MEMORIA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako misio hau du ezarrita: «Euskal administrazio publikoentzat eta herritarrentzat erreferentziazko kontrol-agintaritza independentea izatea, pertsonen pribatutasunari eta intimitateari dagokienez, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea errespetatu dezaten zainduz».

Bulegoaren ikuspenaren xedea da lortzea gizarte bat eratzea, non herritarrek datu pertsonalen esparruan dituzten eskubideak ezagutzen dituzten eta jakin dakiten nola izan behar den tratatua beraien informazio pertsonala; non herritar ororen eskubide guztiak errespetatuak diren eta datu babeserako eskubidearekin ponderaturik erabiliak diren, eta non euskal administrazio eta instituzio publikoek modu leialean, legearen arabera, arduratsu eta seguru jokatzuz tratatzen dituzten datu pertsonalak eta horiekin elkarreragin.

Hori guztia erdiesteko, Bulegoak honako balio hauek ditu gidari: bere eskumenez baliatzea independentziarekin, herritarrenganako hurbiltasuna eta administrazio publikoekiko lankidetzaz, Bulegoan lan egiten duten pertsonen garapena eta asebetetzea, eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntza kudeaketaren esparruan.

7.1.1 DBEBren jarduerak

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontrol-agintaritzaren izaera duenez, hainbat eginkizun burutzen ditu modu jarraitu eta iraunkorrean, otsailaren 25eko 2/2004 Legeak esleitzen dizkion eginkizunetatik eratorriak.

Kontrol-eginkizuna.

- Eskubideak babesteko prozedurak izapidetzea. Herritarrek datuetarako irispiderako eskubidea, datuak zuzentzekoa, tratamenduaren aurka egitekoa, ezereztekoa («ahaztua izateko eskubidea»), tratamendua mugatzekoa, datuak transferitzekoa eta banakako erabakien objektu ez izatekoa egikaritzearen ondoriozko prozedurak dira.
- Salaketa-prozedurak izapidetzea. Datu-babesaren araudiaren aurkakoak izan daitezkeen jokabideengatik aurkeztutako erreklamazioei dagozkien prozedurak dira.
- Informazio-eginbideak izapidetzea. Ofizioz irekitzen dira datu-babesaren arloko araudiaren aurkakoak izan daitezkeen egintzengatik.
- Administrazio publikoen arau-hauste eta zehapen-espeditenteak izapidetzea, jardueraren batek datuen babesaren arloko araudia urratzen duelako susmorik dagoenean.

Ikuskaritza-eginkizuna.

- Frogatzeko ikuskapenak egitea, kontrol-espeditente batzuen instrukzioarekin lotuta.
- Prebentzioko ikuskapenak egitea, diagnostiko eta egokitzapen xedearekin.

Aholkularitza-eginkizuna.

- Otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorreari buruzko proiektuen gaineko legezketasun-txostenak egitea eta nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten arau-xedapenei buruzko txostenak egitea.
- Bestelako araugintza-proiektuei buruz eskatzen diren legezketasun-txostenak bidaltzea, datu pertsonalak babesteko eskubideari dagokionez.



- Administrazio publikoek eta pertsona pribatuak, fisikoak nahiz juridikoak datu pertsonalen babesaren arloko gai jakinei buruzko zalantzak argitzeko eskatuz egindako kontsultei erantzuteko irizpen juridikoak egitea.

Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa.

- Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa, Erregelamendu Orokorra aplikatu ostean.

7.1.2 Datuen babeserako eskubidea sustatzeko jarduerak.

Datuen babeserako eskubidea sustatzeko ekintzak, eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntzarakoak, beti ere Bulegoak esleituta dituen ahalen esparruan, bere jardueraren ardatzak, administrazioaren eta herritarren eskubideak eta betebeharrak zabaltzeari, hedatzeari eta ezagutzeari dagokionez.

Horretarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak pertsonen eskubideak eta erakundeen betebeharrak sustatzen ditu. Horrez gain, aholkularitza aditua ematen du eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzen du, gatazkak konpontzen ditu (eskubideak babestea, arau-hausteak deklaratzeko eta abar) eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan jardunbide egokiak sustatzen ditu.

Jarduerok lau ardatz nagusitan antolatu dira, eta horietako bakoitzarentzat erronka hauek finkatu dira besteak beste:

Ardatza: Herritarrak

- Lortzea herritarrek balia dezatela datuen babeserako eskubidea, eskubidearen berri dutelako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa dagoela dakitelako eta eskubideez baliatzea erraza eta ezaguna delako.

Ardatza: Administrazio publikoak

- Lortzea administrazio publikoek datuen babeserako eskubidea bete dezatela.

Ardatza: Aliatu estrategikoak

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoak dituen helburuak lortzen laguntzen duten aliantza estrategikoak izatea.

Ardatza: Barne antolaketa

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoko pertsonen kudeaketan eta lanbide-garapenaren esparruan hobekuntzak eta berrikuntzak egitea.

7.1.3 2021ean egindako jarduerarik aipagarrienak

2021ean sustatzen jarraitu dugu datuak babesteko oinarritzko eskubidea, bai eta etengabeko prestakuntza eta berrikuntza ere, Bulegoaren eskumenak baliatuz.

Honako hauek dira egin diren jarduerarik aipagarrienak:

- 2020ko memoria idaztea.
- Prozedurak izapidetzea eta irizpenak ematea.



- Frogatzeko ikuskapenak egitea, espediente batzuen instrukzioarekin lotuta.
- Datuen babesaren kultura, zabalkundea, ikerketa eta ezagutza sustatzea eta gizartean hedatzea.
- Datuen babesari buruzko biltzar nazional nahiz nazioartekoetan parte hartzea, eta horko lantaldeetan ere bai.
- Datuak babesteko agintaritzen artean ditugun proiektu komunak garatzen jarraitzea eta lantaldeetan parte hartzea.
- Bulegoaren barne ezagutzaren kudeaketa- eta zabalkunde-sistema sendotzea eta hobetzea.
- DBEBren lehentasunezko eta ohiko solaskideekiko harremanak sendotzea.
- Legebiltzarrarekiko eta beste erakunde parlamentario batzuekiko harremanak bultzatzea, datu-babesa aztertzeke autonomia-erkidegoko legerian.
- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta datu-babesari buruzko jarduerak sustatzea.
- DBEBren doktrinaren zabalkundea egiteko edukiak garatu eta editatzea.
- Materialak garatzea eta kontzientziazio- eta trebakuntza-saioak sustatzea eta ematea, administrazio publikoei zuzenduta.
- Jarraitzea web-orrian irizpen juridikoak eta ebazpenak argitaratzen.
- Herritarrei zuzendutako hitzaldiak, mintegiak eta jardunaldiak sustatzea eta ematea, eta materialak garatzea.
- Lanpostu-zerrenda egokitzea abian dauden arau-eskakizun berrietara.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jardueraren gaineko itzulpen-lanak egitea, eta datu-babesaren esparruko terminologia sendotzea.
- Administrazio publikoetan kalitatearen hobekuntza sustatzen duten erakundeetan parte hartzea.



DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA
AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA / AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS entearen zuzendari Margarita Uria Etxebarria andreak 2021eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko kontuak sinatzen ditu eta bat datorrela adierazten du, Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren 28an. Hona hemen urteko kontuak osatzen dituzten agiriak:

- BALANTZEA
- ONDARE-EMAITZAREN ETA EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA
- ONDARE GORDINAREN ALDAKETA-EGOERA
- ESKUDIRU-FLUXUAREN EGOERA
- AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA
- MEMORIA

Pedro Alberto González González jauna,

Idazkari nagusia

Margarita Uria Etxebarria andrea,

Zuzendaria



